

Gaiak



Txillardegí, Donostiako Boulevard-eko terrazan. / JAVIER HERNÁNDEZ

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, 'TXILLARDEGI' / Idazlea

“Nobela berria idaztekotan nago, kritika onen ondoren”

JOSE LUIS ARGIBANO
Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegí (Donostia, 1929) gudari egunean jaio zen. Honela, aste honetan 75 beteko ditu eta eskutan euskal fonetikaz zein gizakiaren existentzialismoari buruzko lanak dauka. *Euskararen aldeko borroka* liburua kalean ipini berri du, bere ibilbide luzeko artikulak bilduz. Omenaldiek nobela berria idaztera animatu omen dute. Euskarak bizirik iraun dezan, ezinbestekotzat jotzen du “hizkuntz lurraldetasuna”.

Galdere. Omenaldien ondoren, oraindik badituzu hainbat proiektu, ezta?

Erantzuna. Ari naiz prestatzen bost saiakera, *Horretaz* izenarekin. Lehen egin nituen beste hamar. Gizakiaren arazo funtzeskoak ukituko ditut: astronomia, eboluzioa, primategia. Eta, besteak, euskal fonologiari buruzko lana dut eskutan, bertsolarietan oinarriturik eta Aita Zabalen *Auspoa* nagusiaz.

“Jendea elebiduna izatea eta hizkuntza libreki aukeratzea ez da inon gertatu”

G. Eta nobelagintza?

E. Egia esan, ez nuen egiteko asmorik, baina egun hauek entzun ditudan kritika onak entzunda, agian egingo dut nobela berri bat, baina *Putzurdegianoa*, ez *Exkixu* edo *Pitzur*ren antzekoak, *barojanoak* zirenak.

G. Leturiaren egunkari ezkuta edota Peru Letartzako nobelek zuten existentzialismo eta gai metafisikoak landuko al dituzue berriro?

E. Egiten badut, nobela abstrakto izango da, sinbolikoa, arraroa, nahiko kafkianoa.

G. Nola ikusten duzu euskal literaturaren egoera egun?

E. Askok esaten dute ez ote dugun idatzi, eta neuk ere bai, militantziagatik eta ez barne nahi batek, literario batek, bultzatua. Uste dut momentu honetan hori ez dela egia. Atxaga, Juan Mari Irigoien, Koldo Eizagirre edota Andu Lertxundi, esaterako, balio literarioak dira eta idazten dute euskaraz nahiko modu naturalean. Ez da guztiz egia militantziagatik egiten dutela. Normalkuntza hori gertatzen ari da, eta literaturan nabaritzen da.

G. Militantzia ahultzea onargarria zaio literaturari berari?

E. Baietz uste dut. Dena den egoera tipikoa da gurea. Kafka judua zen, herri protestatan bizi zen, Txekian, etxean alemanieraz egiten zuen, dialektala seguraski, eta ez zuen txekieraz idatzi. Camusek frantsesez egin zuen eta ez arabieraz; eta Joycek ingelesez, ez irlandezaz.

G. Baina normalizazio presesua noiz amaitzen da, denek euskaraz egiten dutenean?

E. Normalkuntzak bi aurpegi ditu. Bata, hizkuntzarena berarena, eta bestea gizartearena. Lehe-na aurreratua dago eta diglosia lortu daiteke: jendeak etxean euskalkiak erabiltzea eta idazterakoan batuaz: gizartean oraindik oso urrun gaude, baina. Nik ez dut elebitasunean sinisten. Finlandian Estatua elebiduna da, baina han ere oso jende elebidun gutxi dago. Denak elebidun izatea eta jendeak gerro libreaki nahi duen hizkuntza aukeratzea ez da inon gertatu. Hemen euskal komunitatea sendotu behar da: euskarari oinarri eta gero gaztelera, frantsesa eta ingelesa.

G. Orduan, koofizialtasuna ez da nahikoa?

E. Estonia, Lituania eta Letonian Konstituzioak dio bertako hizkuntza baino ez dela ofiziala. Etorkinek eskubide pertsonalak dituzte baina komunitate bezala ez dute eskubiderik.

G. Eta euskal herritar erdaldunen eskubideak?

E. Hori da hemen dugun arazoa eta Letonian, esaterako, ez dagoena. Hor arazoa daukagu PP eta PSOErekin, alderi inperialistak baitira.

G. Baina botoak dituzte.
E. Hori da. Eta lotsagarria da. Donostian Maria San Gil ez da estralutarra, jende askok babesten du.

“Askok esaten dute ez ote dugun idatzi militantziagatik, eta ez nahi literarioagatik”

G. Jaurilaritza kultur arloko plana aurkezten dago. Zer bultzatu beharko luke plan horrek?

E. Ni ez naiz fido EAJrekin, ez euskarazko kontuetan ezta politikan ere. Egia da hemen Estatutuari esker gauza asko egin direla baina era berean horrek honako integrazio politikoa ekarri digu: “euskarari bai baina Espainia barruan”. Neokarlismoa da, eta herri honek ez du konponbiderik independentziarik gabe. Estaturik gabe Euskal Herriak ez du etorkizunik. Horrez gain, hizkuntzaren likidazioa edo desagerpena denbora kontua da. Hizkuntz lurraldetasunik gabe, bai.

G. Zuk gaztetan ikasi zenuen euskara.

E. Ni euskaldunberri zaharra naiz. 18 urtez, gaixo egon nintzen ohean, udan, eta amarekin ikasi nuen.

G. Eta noiz uzten zaio euskalduberri izateari?

E. Martuteneko espetxean preso 1950ean egon nintzenean, Azpeitia eta ksotaldeko jendearekin hitzetan kendu nituen euskaraz hitz egiteko beldurra eta euskaldunberri izatearen konplexuak.

Mundua hizkuntza denekoa

JON KORTAZAR

Asko estimatzen nauen adiskide batek beti gogoratu zuen dit zein den literatur kritikaren oinarria. Bere ustetan, bada desberdintasun garbia filologo eta literatura irakurtzen dugunon artean. Literaturara dedikatzen garenok interpretazioaren bideak aukeratzetan ditugu nahiz eta aurrean dugun testuaren gainetik eta inoiz testua irakurri ere ez omen dugun egiten: filologok ordea, ez dute besterik egiten, testua irakurri besterik ez alegia. Guretzako testua aitzakia bat da, haientzako oinarria.

Adiskide horrek hain desberdintasun garbiak egiten dituenean, letra munduan garrantzia duen beste talde bat abaztu du: itzultzaileak. Eta haiek, lehen-lehenik, filologok bezala, testua irakurri egiten dute, oinarritzat hartu, eta gero, interpretazio munduan murgildu behar dute. Testua desituzteratzeko arrisku bi dituzte itzultzaileek begien aurrean, testuak diena gaizki irakurtzea, eta gaizki interpretatzea, eta arrisku batean edo bestean jausiz gero, beste-lakoa izango dute emango duten itzulpena.

Adiskidearen oroimena eta hausnarketa xumeok aste honetan bizi izan ditut Tarazonako Itzultzaileen etxean, Francisco Uriz gogoratuak sortu zuen eta Carmen Lópezek hain esku leuez zuzentzen duen etxean.

Bertan bildu ginen idazle bat, Pello Lizarralde 2003ko Euskadi Saria, zenbait itzultzaile bere ipuin bat, *Un ange passe* gogoangarria, Europako zenbait hizkuntzataraz itzultzeko, eta gonbidatu gisa izan zen artikulua honen egilea.

Espertentzia aberasgarria izanez gain, beste zenbait zertzelada agertzeko modua ere izan da. Ez naiz horrelako lan-mintegi batean inoiz izan. Eta hasieran itzultzaileen arreta hitzetan geratu izan bazen, eta adibide bat jarriko dut. Nola itzuli “txapel gorria daraman polizia” politikak txapelik —eta gutxiago gorririk— ez daraman hizkuntza eta errealtaterara? Nola adierazi agur keinu xume bat —eta Lizarralderen lana, isiltasuna maite duenez, keinuaz besterik agertzen da— keinuak maite ez dituen gizarte bati?



Pello Lizarralde idazlea. / LUIS AZANZA

Zer diru nagusi testuaren indarra eta testuak agertzen duen literalatasuna edo hartzailearen munduak izango duen agerbidetza?

Kultura, badakigu, ez da soilik hizkuntzan agertzen, edo bestela esanda, hizkuntza berbera izan arren, gaizki ulertuak sortzen dira gizartearen alde desberdinetan, bezar hizkuntzak itzultzen direnean, munduak ere itzultzen dira hizkuntza batetik bestera, eta maiz, hizkuntza bera hitz egiten dutenen artean ere. Hizkuntzaren eta munduaren artean kokatzen da itzultzailearen lana, munduak hizkuntzaren izena hartzen duen puntuan.

Mintegia egin zen tonu adiskidetsuaren barnean, luxuztat jo zuten itzultzaileek idazlearen partaidetza, eta, uste dut, halaxe hartu zuela idazleak ere itzultzaileen lana. Adiskidetasuna une oro zabaldu zen, eta baita ere partaidetaren arteko joera adeitsu. Nik Pello Lizarralde pertsona isil eta iluntzat nuen, baina bertatik bertara bestelakoa izan da bere portara: barre zantzuak egin genituen berak kontaturikoarekin, bada mimikarako joera berezia (agian maisu izanak laguntzen dio horretan), eta horren bidez “pertsio-a-naien” izaera hobeto ulertzen lagundu zigun.

Beti pentsatu izan dut idazlearen lana bakarreko lana dela, eta nolabaiteko aztoratzea izaten duela irakurlea haragiz eta jakin nahiez agertzen zaionean, ez berak aurrez asmaturiko irakurlea, baizik eta benetakoa, “pertsio-amaia” mutila edo neska denez galdetzen diona, literaturaren hain ugariak diren hutsuneak bete nahian.

Itzultzaileek ere eskertu zuten idazlea hain eskura izateko, zalantza hain era erraz eta zuzenean testuaren egilearekin argitzea. Eta lana batera eginaz batek ikusi ez zuen galdere egiten zuen beste itzultzaile batek. Ipuina bost hizkuntzetan argitaratuko du Tarazonako Itzultzaileen etxean.